


Amaia Arrazola
Sortzailea



“Amatasunak belarrondoko bat eman zidalako sortu nuen liburua”

Amaia Arrazola (Gasteiz, 1984) ilustratzaileak Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi zuen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Publizitate agentzia batean lan egin ostean Bartzelonara lekualdatu zen, eta han bizi da orain dela hamar urtetik. 2018ko urrian ama izan zen, eta bere unibertsoa mila pusketatan lehertu zela aitortu du. Isilarazitako amatasunaren aldarrikapena egin du argitaratu berri duen *El meteorito* (Lunwerg Editores, 2020) ilustrazio liburuan.

 SAIOA BALEZTENA
 JOSÉ GALLARDO

Marraztea adierazteko modu bat omen da zuretzat. Noiztik?

Betidanik. Ttikia nintzenean eta nire ahizpekin dendetan erosketak egitera jolasten nintzenean, erositako produktuak marraztu egiten genituen. Denetarik genuen: frutak, barazkiak, soinekoak eta baita elkarri deitzeko erabiltzen genituen telefonoak ere. Marrazketarekin, pinturarekin eta sormenarekin zerikusia duen guztia gustatu izan zait betidanik. Baina sekula ez nuen imajinatu nire ogibidea hau izanzen zenik! Erranen nuke booma 22 urte nituenean etorri zela, urtebetez Parisera ikastera joan nintzenean. Oroitzen naiz bertan neska ilustratzaile bat aurkeztu zidatela eta zerbait piztu zitzaidala barruan: “Marraztuz bizi daiteke?”, galdetu nion nire buruari.

Gasteizen jaio zinen arren, Madrilen eta Bartzelonan pasa dituzu azken urteak. Kataluniako hiriburua sortzaile anitzen bizitokia da.

Bartzelona etxea da niretzat. Bertan lurrreratu nintzen Madrilen zortzi urtez ikasten eta publizitatearen arloan lan egiten aritu ondotik. Eta Bartzelonak ezin hobeki hartu ninduen. Nire asmo berdinak zituzten eta adoptatu ninduten hainbat pertsona ezagutu nituen, margo-lariak edo ilustratzaileak ziren, eta bide berri bat hasi genuen elkarrekin. *Coworking* bat sortu genuen, *coworking* hitza ere existitzen ez zenean: tira, sinergiak gurutzatu eta elkar babesteko elkartu ginen. Elkarrekin bakarka baino indartsuagoak ginela ikusi genuen. Gaur egun, ez gaude sabai beraren azpian, baina fa-



milia dira Guim Tió, Conrad Roset, Chamo San... Bartzelona itsasoa ere bada, epeltasuna, argia, terrazak, irriak, egitasmoak, kultura, festa, artea... nire alaba katalana da.

Bertan gelditzeko asmoa duzu?

Momentuz hemen jarraitzen dut. Bikoitekidea Kanariar Uharteetakoa da eta beti pentsatu izan dugu Gasteiz eta Kanariar Uharten artean, Bartzelona ez dagoela gaizki erdibideko bizitoki bezala. Argi duguna zera da, oraintxe hirigunea behar dugula bizitzeko, gure lana ahalbidetzen duten gauzak izateko: nik ilustratzaile bezala eta berak margolari bezala. Baina egia da geroz eta gehiago botatzen ditudala faltan nireak: Euskal Herria, berdea... Sustriak, funtsean.

Krisi ekonomikoa lehendabizi eta pandemia gero. Zaila izan zaizu ilustraziotik bizitzea?

Tira, krisiaren alaba naiz. Ez ditut ugartasun-urteak ezagutu. Beraz, nire ogibidea garatu dut zailtasun aro honetan eta ez dut bertzerik ezagutzen. Hauek dira nire jokoaren arauak. Baina bai, noski, zaila da. Zorionez, familiaren babes izugarria izan dut eta hori ezinbertzekoa izan da artea nire ogibide bilakatzeko. Bartzelonara etortzeko Madrilgo publizitate agentzia batean neukan kontratu mugagabea uztea erabaki nuenean, nigan sinetsi zuten eta nire karreraren konfiantza izan zuten. Eta pandemia garaian, tira... gauzak egiten jarraitu beharra zegoen, ezin naiz geldirik egon.

Dena etiketatzeko ohitura duen gizarte honetan, zuk ihes egiten duzu eta eroso zaude sortzailearen aterki zabalean, ezta?

Gizarte oso indibidualista batean bizi gara. Eta, zintzoki, uste dut gauza onak komunitatean gertatzen direla. Nire ibilbidea lagun talde batekin abiatu nuen. Bakoitzak bere bidea zuen baina elkarrekin indartsuago ginen. Gaur egun, hainbat sormen esparrutako jendearekin kolaboratzen dut etengabe eta horrek aberasten nau.

Aldiz, ohikoa da sortzaileen artean etiketen arteko desberdintasun hori aldarrikatzea. Zer ematen dizu zuri askatasun horrek? Zertan desberdintzen zaitu?

Pentsatzen dut badagoela jendea adar bakarrean sakonki lan egitearen aldeko apustua egiten duena, baina ez da nire kasua, nik aldatzeko beharra daukat, gauza berriak probatu eta mugimendua sentitzeko. Zeharkakoa sentitzen naiz zentzu horretan. Sormena gustatzen zait bere adierazpen desberdinetan; zoratzen nau bertze pertsona batek idatzitako testu-liburu bat ilustratzeak, zerotik osorik neronek liburu bat egiteak adina. Enkarguak gozatzen ditut, interesgarriak direnean, noski. Muralismoa eta formatu handiko pintura maite ditut, baita zera-mika, poesia edo tipografia ere. Ez dakit, ezingo nintzateke etiketa bakarrarekin identifikatu, gainontzekoak galtzeak pena handia emango lidakeelako.

Ama zarela erran diguzu. Hitz egin dezagun zure bigarren erditzeaz: *El meteorito* liburu argitaratu duzu pandemia betean. Noiz eta nola sortu



zen ideia?

Alaba bat izateak zer erran nahi zuen ikusten hasi nintzenean erabaki nuen liburu egitea. Bi arrazoiengatik, batez ere. Batetik, garrasi gisa: beharra nuen "hemen jarraitzen dut!" erran, eta nire ama nortasunak gainontzeko nortasunak eklipsatu ez zituela lau haizeetara aldarrikatzeko. Bertzetik, amatasunak bellarondoko bat eman zidalako. Ez nuen espero hainbertze emozio, bizipen, neke, eskaera, beldur, amodio... "Zergatik ez zidaten hori aurretik azaldu? Nola da posible honen berririk ez izatea?", pentsatu nuen. Nire kabuz aztertzen hasi nintzen eta ikusi nuen baietz, bazeudela amen kontakizunak zentzu horretan. Esther Vivasen *Mamá desobediente* (Ama deso-

bediente) liburu zoragarriarekin topo egin nuen, eta baita ere Jane Lazarren *Nudo materno* (Amaren korapiloa) liburuarekin eta Sylvia Plathen hainbat poemekin. Duela guti Katixa Agirreren *Amek ez dute irakurri* dut eta maite dut ama izan diren emakumeak irakurtzea... Baina zintzoki, amatasun esperientziak guti idatzi da eta nik egitea erabaki nuen. Zergatik ez?

Zenbateraino dago amatasuna idealizatuta zure ustez?

Emakumearen inguruko hainbat kontutan gertatzen da, eta nola ez, amatasunean ere bai. Ama izatearen gaineko erromantizazioa eta idealizazioa da nagusi: zoriontasun malkoak, "zure bizitzako egu-

nik hoberena", ama-sena... Eta gero dau-
de obligazio guztiak; ama-kemena, bere
haurrengatik dena sakrifikatzeke prest
dagoena, beti hor, indartsu... Eta noski,
eskatzen zaigu lau hilabeteko amatasun
baimenaren ondotik lanera itzultzea,
haurtxoa haur eskolan utzi eta aurrera!
Ama izateak sekulako nahasmena eragi-
ten du gure bizitzan. Meteorito bat da. Eta
egiazko amatasun hori ez da saltzen, ins-
tagramen *atsegin dut*-ik eragiten ez duen
emakumearen ikuspegi iluna erakusten
duelako.

El meteorito, beraz, amatasun errealaren aldarrikapena egiten duen liburua da?

Egia erran, hasieran ez nuen aldarrika-
penik egin nahi izan, bizitakoa kontatu
nahi izan nuen, bertzerik gabe. Kontatua
izateko hainako gogorra iruditzen zaida-
lako. Baina kontuz, beti diot nire amata-
suna kontatzen dudala bakarrik, ez dut
iradokizunik egiten ez naizelako inor hori
egiteko. Ez naiz espezialista gai honetan.
Are gehiago, liburua hasten da erranez,
"Amaia estimatua...". Alegia, nire buruari
solastatzen diot, duela bi urte eta bedera-
tzi hilabete gainera zetorkiona ezagutzen
ez zuen Amaiari. Baina kontziente naiz
nire testigantza agian erabilgarria dela,
bakarrik sentitzen diren bertze emaku-
meentzat. Bakarria ez zarela jakiteak eta
bizitzen duzuna arraroa ez dela ikusteak
lagundu eta sendatu egiten du.

Nola eragin dizu amatasunak zure ibilbide profesionalan?

Erabat. Batez ere, erdiondoko lehendabi-
ziko urtean. Hainbat zentzutan. Batetik,
bat-batean nire espazio mentala zein sor-
tzeke espazio fisikoa galdu nituen, era-
bat. Nire lana marraztea da, sortzea eta
margotzea, eta Ane jaio zenean ez nuen
bera ez zen ezertan pentsatzeko auke-

rarik. Noski, nire amatasuna markatuta
dago nire testuinguru pertsonalarekin,
nire bikotekidea eta ni Bartzelonakoak ez
garenez ez dugu familia sarerik inguruan.
Hirurok bakarrik ginen eta lana egiteko
espazioa murriztu zitzaigun egun bate-
tik bertzera. Lana egitea edo lana egitean
pentsatzea ezinezkoa zitzaidan haurtxoa
eskuetan nuela.



Amatasun erreala
ez da saltzen,
Instagramen 'atsegin
dut'-ik eragiten ez
duen emakumearen
ikuspegi iluna
erakusten duelako"

Bertzalde, nire lanak halabeharrezko
eraldaketa pairatu zuen. Badira dagoene-
ko Anerekin bateragarriak ez diren lanak,
batez ere muralak. Formatu handiko pin-
turak orduak behar ditu, dedikazio han-
dia, esfortzu fisikoa eta mentala: aldamio
batean goraka eta behe-raka ibiltzea, grua
bat gidatzea, hiru egunez etxetik kanpo
egotea... gaur gaurkoz egin ezin ditudan
gauzak dira horiek. Espero dut etorkizu-
nean berreskuratu ahal izatea, izugarri
gustatzen zitzaidalako. Oraingo ez estudio
lanean ari naiz, tamaina -baina ez garran-
tzia- tikiagoko proiektuetan.

Zer deritzozu liburuaren harreraz?

Hagit zoriontsu nago. Berriki konfirma-
tu didate makineta sartu dela bigarren

edizioa. Horrek pozez zoratzen nau, ima-
jinatu. Eta baita jaso dudana erantzunak
ere. Sare sozialek hori dute, irakurtzen
zaituenarekin elkarrizketa kasik kons-
tantea ahalbidetzen dutela; onerako zein
txarrerako. Nik bizi izan nuena pasa du-
ten emakume anitzek erraten didate nire
liburuari esker babestuago sentitu direla.
Neska batek Instagrametik lehen aldiz
bere erditzea eta erdiondoa kontatze-
ko mezu bat bidali zidanean, negar egin
nuen. Hunkigarria da historia hain per-
tsonal batekin konektatzea erabat ezeza-
guna den jendearekin.

Hitzaurrea Esther Vivas kazetariak idatzi du.

Bere liburua itsasargia izan zen niretzat.
Irakurtzen hasi nintzenean hainbertze
gauza ulertu nituen... %100 konektatzen
dut bere diskurtsoarekin. Hagitz kontent
nago bere liburuak hain harrera ona due-
la ikusita. Irakurri behar da, ama edo aita
izan edo ez. Betidanik pentsatu izan dut
denok ez garela ama edo aita izango, bai-
na seme-alabak garen heinean gehiago
konektatu beharko genuke gai hauekin.

Zein dira orain esku artean dituzun proiektuak?

Anerekin [alaba] konfinamenduan egin
nituen kartoizko jarduera batzuetatik
jolas-liburu bat sortu da, eta argitara-
tu egingo dut. Oraintxe bertan, hori da
ilusio gehien egiten didan proiektua.
Etxean ginela, esne kartoiak hartu ni-
tuen eta Anerentzako puzzle batzuk sor-
tu nituen. Instagramera ere igo nituen.
Ongi funtzionatu zuen, une horretan
guztiok geundelako geure seme-alabak
entretentzeko gisa horretako gauzen
egarriz. Baina sorpresa izan zen Flambo-
yant argitaletxe preziatua etorri izana,
publikatu nahi zuela erranez. Urtarri-
lean aterako da, azkenean! ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com



TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com



BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Enpresa eta autonomiei
aholkularitza eskaintzen diegu

Urbietia, 15 - 20120 Hernani
Tel: 943 33 12 67
www.brintza.com

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

